

urola garaia

MIKEL IBARZABAL

URRETXUKO BURUHANDI BERRIEN EGILEA

“Sei buruhandiek talde bat osatzen dutela nabaritzea nahi nuen”

Urretxuarrek buruhandi berriak estreinatu dituzte Santa Anastasia jaietan. Panpinek XIX. mendeko sei euskal bandolero irudikatzentzituzte. Mikel Ibarzabal bergararrak egin ditu, Mugitegi industrialdeko bere tailerrean, Lekao elkartearren enkarguz

ASIER ZALDUA

URRETXU. Noiz eta nolatan hasi zinen panpinak egiten?

Inauteri batzuetan lagunok hankaluzez mozorrotzea erabaki genuen. Bergarako Udalerri gure ideia gustatu egin zitzaien eta berarentzat lan egitea eskaini zigun. Lokal bat utzi zigun eta diru laguntza eman zigun, hankaluzez taldea sortzeko. Kukuma izena jarri genion. Urte pila bat eman genituen festarik festa: Bergarako auzoak, Arrasate, Antzuola, Eibar... Urtero panpinak aldatzen genituen. Nik egiten

maskotaren bi kopia egin nituen. Oraindik haietan jarraitzen dute. Denboraldi amaieran Urretxura ekartzen dituzte, konpontzeko. Eguna, beste bat egitekotan dira. Finean, *Aker* maskotaren kontu hau izan zen honetan lan egitera bultzatu ninduena.

Lan asko egin al duzu ordutik hona? Dezena. Ahoz ahokoaren bitartez egin naiz ezaguna. Baskoniaren maskota ikusi duenak antzerako zer edo zer egiteko eskatzen dit... Pirritx eta Porrotxentzat, adibidez, *Antxoni* izeneko ahuntza egin dut. Irurtzuneko dantza taldeak *Antxoni* ikusi zuen eta pailazoei nire telefonoa eskatu zieten.

Zenbat lan egiten dituzu urtean, gutxi gorabehera?

Oso zaila da kalkulatzea. Urretxuko buruhandiak egiten ia hiru hilabete eman ditut eta beste lan batzuk egiteko, berriz, bi egun bakarrik behar ditut.

Zein da egin duzun lanik handiena?

Donostiako Beldurrezko Zinemaren Asterako egin nuen armiarma erraldoia.



Mikel Ibarzabal, 'Eder' izeneko buruhandiari azken ukituak ematen. ARGAZKIAK: A.Z.

araberakoa izaten da. Normalean, goma-aparra, latexa eta beira-zuntza erabiltzen ditugu. Azken hau, panpina estatikoetarako.

Duela aste pare bat Urretxuko buruhandi berriak aurkeztu ziren. Zer esan dizu jendeak?

Jendea pozik gelditu da eta ni ere bai. Lan batzuk erakargarriak izaten dira eta beste batzuk ez. Hau oso polita izan da eta oso gustura egin dut. Dena eman dut. Estilo bat sortu nahi nuen: sei buruhandiek tal-

dugu Urretxu eta Zumarragako merkatari elkartearrentzat. Hilabete eta erdi beharko dugu, gutxi gorabehera, eta Areizaga-Kalebarren plazan jarriko dugu.

Bukatzeko, duela urte batzuk ikastaro bat eman zenien Urretxuko Euskal Jaian parte hartzen duten karroza egileei. Zer iruditu zaizu aurtengo desfilea?

Egun, halako ekimenak aurrera ateratzea zaila da: jendeak bere borondatez karrozak egitea eta,